



Erabiltzaileen formakuntza
(Informazio-alfabetazea-ALFIN)
Haur hezkuntza-Lehen hezkuntza

LIBURUTEGIAN KONTU-KONTARI

Haur hezkuntzako 2. eta 3. mailetako ikasleei zuzenduta dago. Bertan liburutegiaren ezagutzan lehen hurbilketa bat egiten da. Helburuak:

- Udal liburutegia fisikoki non kokatzen den ezagutzea.
- Liburutegiaren kontzeptu zabala ulertzea eta bertako arau orokorrenak ezagutzea (mailegua, liburuaren zainketa etab.)
- Umeak literatur mundura hurbiltzea ipuinen bitartez.

Saio hauek umeen parte hartzea bilatzen dute, ipuinak kontatzen dira eta umeek gustuko liburuak aukera ditzaten bultzatzen da.